

2025eko OTSAILAREN 10eko GRADUONDOKO BATZORDEA
COMISIÓN DE POSTGRADO DE LA UPV/EHU DEL 10 DE FEBRERO DE 2025

Punto 6.1. gaia

2024ko apirilaren 25eko UPV/EHUko Doktorego Ikasketa Ofizialen Gestiorako
Arautegia garatzeko arau osagarriak (O)
Normas complementarias al Reglamento de Gestión de las Enseñanzas Oficiales de
Doctorado de la UPV/EHU de 25 de abril de 2024 (A)

ERABAKI PROPOSAMENA, 2025eko OTSAILAREN 10ekoa, UPV/EHUko GRADUONDOKO BATZORDEARENA, ARAU OSAGARRI BAT ONARTZEKO, DOKTOREGO IKASKETA OFIZIALEN GESTIORAKO ARAUTEGIKO 8.5 ARTIKULUA GARATZEN DUENA

Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzak proposamen bat aurkeztu du arau osagarri bat onartzeko Doktoregoko Ikasketa Ofizialen Gestiorako Arautegia (2024ko ekainaren 7ko EHAA) garatzeari begira, zehazki 8.5 artikulua, doktoregoko matrikula baliogabetzearen ingurukoa.

Indarrean dagoen arautegiko 8. artikulua matrikula prozeduraz dihardu, eta 5. atalean honako hau dio matrikula baliogabetzearen inguruan:

5.- Matrikula baliogabetzea eta aldatzea Doktorego Eskolan.

Doktoregaiak ikasturteko edozein unetan baliogabetu ahal izango du matrikula. Matrikula osorik baliogabetu beharko da, eta ez da atzera jasoko ordaindutako dirua. Horrek, hala ere, ez du eragotziko artikulua honetako 7. puntua betetzea. (...).

Artikulua orain idatzita dagoen bezala, zalantzak sortzen izan dira noiz arte eta zein baldintzatan baliogabetu daitekeen matrikula, eta, beraz, komeni da testua garatzea, bereziki epea zehaztuz. Izan ere, matrikula baliogabetuta, orain ikasleak aukera du hurrengo ikasturtean izena eman eta matrikula egiteko doktorego ikasketak hasieratik hasita, baina hori ez da bateragarria ikasketa horien izaerarekin, eta gainera ez dator bat doktoregoan jarraitzeko arauarekin. Matrikula baliogabetzeak ez du gelditzen doktoregoko ikasketak egiteko gehieneko epearen zenbaketa. Horretarako, beharrezkoa da borondatezko baja eskatzea edo arrazoi legalek (gaixotasunak...) eragindako baja aurkeztea. Era berean, matrikula baliogabetzeak ez dakar doktorego programa behin betiko uztea, ikasleak berak hala eskatu ezean. Horretaz gain, matrikula baliogabetuagatik ere, ordura arte ikasitakoaren ebaluazioa ez da desagertzen.

Beraz, 8.5 artikulua horretan zehaztu behar da matrikula lehen urtean baliogabetu ahal izango dela, eta lehen ebaluazioa jaso aurretik betiere.

Azkenik, Doktorego Ikasketa Ofizialen Gestiorako Arautegian (2024ko ekainaren 7ko EHAA) zehazten denez, *Graduondoko Batzordeari dagokio arautegi hau garatuko duten arau osagarriak ezartzea.*

Hori guztia kontuan hartuta, organo honek honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- ONARTZEA 8.5 artikulua arau osagarri batez garatzea, azpimarratutako

testua txertatuz, honelaxe :

8. artikulua.- Matrikula egiteko prozedura.

(...) 5.- Matrikula baliogabetzea eta aldatzea Doktorego Eskolan.

Doktoregaiak lehen mailako edozein unetan, eta, betiere, 17. artikuluaaren arabera ebaluatua izan aurretik, baliogabetu ahal izango du matrikula. Matrikula osorik baliogabetu beharko da, eta ez da atzera jasoko ordaindutako dirua. Horrek, hala ere, ez du eragotziko artikulua honetako 7. puntua betetzea. (...)

Bigarrena.- Erabaki honen **BERRI EMATEA** UPV/EHUko Doktorego Eskolari eta doktorego programetako batzorde akademikoei, kontuan izanda onartutako arau osagarria 2024/2025 ikasturtean, hau da, ikasturte honetan, ezarriko dela.

Bilbo, 2025eko otsailaren 10a

Batzordeko burua

Ainhua Berasaluze Correa
Graduondoko eta Etengabeko
Ikaskuntzako errektoreordea

Idazkaria

Amaia Landera López
Graduondoko Ikasketen Zerbitzuko burua